



Javier Valverde, 1995ean margotutako olio handiarekin. 150 zentimetroko altuera eta 400eko zabalera du obrak. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Maidar IANTZI | DONOSTIA

«Zer da egia?/ Non da gezurra eta egiaren arteko hegia?/ Noiz hasten da kanporantz baino/ barrurantz gehiago ikusten begia?», dio erakusketari buruzko Anariren idatziak.

«Zuhaitz bakan bat. Idorrekoa./ Barrurantz hazten da./ Haizea ez da ikusten/ edo bai/ hostoak mugitzen ikustean,/ haizea ikusten da./ Paisaia ez da aldatzen,/ norbera aldatzen da».

Musikari azkoitiarrak azaltzen duenez, pertsonak ez du perspektibarik aski naturari begiratzeko. «Norberaren bizi oso bat ez da une bat baino aurrean duen mendiaren denboraren kontra».

Halako gogoetetara eramaten gaituzte abuztuaren 27ra arte Koldo Mitxelenako Ganbaran ikusgai dauden koadroek. Javier Valverde margolariak eta Isabel Sagues komisarioak lagunduta egin dugu atzera begirako erakusketa honetara bisita, eta ganbarara goititu baino lehenago, beheko solairuan, instalazio bitxi batekin egin dugu topo: landareak, txoriak, erreka, belarra... «Benetakoak dirudite, oso ondo imitatuta daude, baina dena gezurra da, plastikozkoa. Ondo behatu behar da konturatzeko», adierazi du egileak.

Segidan kukurruku bat aditu dugu, gero ere tarteka errepikatuko dena. Umore pixka bat

Beti berdinak eta desberdinak diren ametssetako paisaiak

Javier Valverderen atzera begirakoan hasieratik bukaerara ageri dira adarrak kanpora eta sustraiak barrura hazten. 30 urte igaro arren, badirudi paisaia bera dela. Baina beti da des-

berdina, naturaren aldaketak gure begientzat mantsoegiak badira ere, gu aldatzen garelako. Umorez eta «malaletxez», errealitatez eta ametsez astintzen du pintzela artista honek.

MENDIKO SENTSAZIOA

Mendian dabilela, sentsazio bitxi bat sentitzen du margolariak. «Baina hori nire koadro batean dago!», erraten dio bere buruari sarri. «Nola ez da egongo? Zazpi mila aldiz igaro naiz-eta hemendik!».

sartu du, koadro guztietan bezala. Lehenbiziko begiratuan serioak eta lasaiak dirudite; denetan gertatzen da zerbait, ordea.

Oiartzunen bizi den margolari hau artista giroan hazia da. Aita margolaria zen, arreba Rosa ere bai, eta sortzaile ugari izan zituen lagun: Amezttoy, Zuriarain edo Llanos gazteak, eta aitaren adiskideak, Oteiza, Chillida, Gal... Beharbada inguru honengatik, Edorta Kortadi arte adituak dioen bezala, txikitatik, «margotzea, paperak zikintzea eta haien gainean kaligrafia txikiak marraztea gauza natural eta simplea izan zen, arnastea, mendian ibiltzea edo naturari begira egotea bezala».

Javier Valverde (Donostia, 1956) 70eko hamarkadaren bukaeran hasi zen pintatzen, eta 1979rako Gipuzkoako artista hasiberrien saria irabazi zuen. Koldo Mitxelenako ganbara honetan, 1981ean hasi eta orain arte margotutako koadroak bildu eta kronologikoki ordenatu dituzte.

Zalantzetatik patxadara

Isabel Sagues komisario eta ilobak azaldu digunez, eboluzioa nabari da. Adibidez, hasieran urdinak eta berdeak agertzen dira gehiago; gero, 90eko hamarkadan aldatu egiten du paleta eta gorriak, kolore lehorrakoak agertzen dira.

Hagitz gustuko du Bardeetara joatea eta bertako paisaia mor-

tuak islatzen dira bere pintzelkadetan. «Kolorea oso inportantea da bere obran, eta oraingoak askoz ere landuagoak direla sumatzen da. 30 urtetan egindako koadroak dira eta denbora horretan pertsonak izandako garapena ere erakusten dute pixka bat. Hasieran beti ibili ohi gara zalantzekin, 'kontuz!' esanez geure buruari. Oraingoak patxada handiagoarekin eginak daude, beste heldutasun bat dute».

Erakusketako 25 olioetan bisitariak Ernio ezagutuko du, eta Aizkorri, eta nola ez, margotuz bizitzera erabaki zuenean aterpetzat hartu zuen Oiartzun. Lehenbizi Ayalde familiako etxean bizi izan zen; geroago, Maimotz baserrian, mendi gainean; orain